musikene

**3/2004 Ebazpena, 2004ko azaroaren 2koa, musikeneren Zuzendari Artistikoarena, Karrera Amaierako Ikerketa Lanak garatzeko eta ebaluatzeko prozedura ezartzen duena.**

Hezkuntza Ministerioaren 1999ko ekainaren 25eko Aginduaren hamabigarren atalak, hain zuzen ere gaur egun **musikene**n indarrean dagoen ikasketa-plana barneratzen duenak, honela proposatzen du Karrera Amaierako Ikerketa Lana: <<Espezialitate guztietarako nahitaezkoa izango da azken mailan idatzizko Ikerketa-lan bat egitea, espezialitatearekin lotura duen gai bati buruz. Gai hori azken mailaren hasieran adostuko da irakaslearekin, edo, hala badagokio, espezialitatearen ezagutza nagusiei dagozkien irakasgaietako bateko irakasleren batekin, eta gaiarekin lotura zuzenagoa duen irakaslearen zuzendaritzapean egingo da lana. Lan hori 6 kredituerekin baloratuko da espezialitate guztietan [...], eta kreditu horiek espezialitate bakoitzerako ezarritakoei erantsiko zaizkie [...]>>

Hala ere, aipaturiko arau horrek ez du prozedura ezartzen, ez eta ebaluazio-sistema ere, eta alderdi horiek ezinbestekoak dira Lana zuzen egiteko.

Horregatik, honako prozesu akademiko hau finkatu da:

1. *Ikerketaren Gaia zehaztea.*

Ikerketaren gaia, dagokion espezialitateko irakaslearekin zehaztu behar dute, ikaslearen ikerketa-interesak kontuan izanik.

2. *Lanaren Zuzendariak.*

Lan hori ikerketa izango denez, **musikene**ren Zuzendari Artistikoak Doktore Maila duten Ikastegiko irakasleak proposatuko ditu lan horren zuzendari gisa. Maila hori ez duen irakaslerik ez badago soil-soilik proposatu ahal izango ditu Zuzendari Artistikoak beste irakasle batzuk. Irakasle horiek, gutxienez, Ikerketarako Nahikotasuna gainditutа izan behar dute.

Baldintza horiek betetzen dituzten irakasleek urtean gutxieneko 10 orduko ardura izango dute ikasle bakoitzeko, erantzunkizun hau nahi badute. Ordu horiek urteko eskola-karga arruntean zenbatuko dira; eskola-orduen karga horrek ezin izango du gainditu Ikastegiak eskola-lanaldi

**Resolución 3/2004, de 2 de noviembre de 2004, del Director Artístico de musikene por el que se establece el procedimiento con que han de desarrollarse y evaluarse los Trabajos de Investigación de Fin de Carrera.**

El apartado duodécimo de la Orden del Ministerio de Educación de 25 de Junio de 1999, que contiene el plan de estudios actualmente en vigor en **musikene**, propone un Trabajo de Investigación de Fin de Carrera en los siguientes términos. <<Para todas las especialidades será obligatoria durante el último curso la realización de un Trabajo escrito de investigación sobre un tema relativo a la propia especialidad. Dicho tema será acordado al comienzo del último curso con el profesor o, en su caso, uno de los profesores de una de las asignaturas correspondientes a los conocimientos centrales de la especia-lidad, y será dirigido por el profesor más afín a la naturaleza del mismo. Dicho Trabajo será valorado con un total de 6 créditos en todas las especialidades [...] que se acumularán a los establecidos para cada especialidad [...]>>

Sin embargo, la citada norma no establece el procedimiento para el desarrollo y evaluación de dicho Trabajo, indispensable para su correcta realización.

Por ello, se fija el proceso académico siguiente:

1. *Definición del Tema de Investigación.*

La definición del tema de investigación debe ser acordado con los profesores de especialidad correspondientes, teniendo en cuenta los intereses investigadores que el alumno pueda tener.

2. *Directores del Trabajo.*

Dado el carácter investigador del Trabajo, el Director Artístico de **musikene** propondrá como directores de dicho proyecto a profesores del Centro que estén en posesión del Grado de Doctor. Sólo en circunstancias excepcionales de no disponer de docentes con esta condición, el Director Artístico podrá proponer a profesores que, al menos, acrediten tener aprobada la Suficiencia Investigadora.

Los profesores que cumplan estos requisitos y que deseen asumir esta responsabilidad, tendrán una dedicación anual mínima por alumno de 10 horas. Dichas horas se contabilizarán en su carga lectiva ordinaria anual sin que se exceda del límite establecido por el Centro como jornada docente a

osorako ezarritako muga.

3. *Ikerketaren Metodologiaren Hastapenari buruzko Ikastaroa.*

Lehenik eta behin, ikasleek Ikerketaren Metodologiaren Hastapenei buruzko Ikastaroa egingo dute. Ikastaro hori gehienez 1/10 ratioa duten taldeetan egingo da.

Hastapen-ikastaro hori Zuzendari Artistikoak izendaturiko **musikene**ko irakasle batek edo batek baino gehiagok emango dute, betiere Doktore Maila badute. Dagozkien eskola-orduak euren eskola-orduen karga arruntean hartuko dira barne.

Hastapen-ikastaroaren oinarrizko edukien deskribatzailea honako hau izango da: <<Ikerketa-kontzeptua eta ikerketa-motak. Ikerketa-ildoak musikan. Ikerketa-lan baten egitura formala: ezinbesteko atalak. Bibliografia-erreferentziak eta aipuak.>>

4. *Zuzendarien tutoretzak.*

Ikasleak 10 ordu izango ditu esleitu zaion zuzendariarekin tutoretzak izateko.
Ordu horiek ikaslearen eta zuzendariaren artean adosturiko egutegi batean banatuko dira; egutegia finkatutakoan, Ikasketa Buruari emango zaio horren berri.

5. *Matrikulazioa.*

Karrera Amaierako Ikerketa Lanaren matrikulazioa irakasgai arruntena egin ondoren formalizatuko da. Horretarako, ikasleak eskaera-orri bat aurkeztu beharko du. Horren eredu normalizatua Ikastegiaren Idazkaritza Pedagogikoan jaso ahal izango du. Eskaera-orrian honako hauek bildu beharko ditu: Lanaren behin-behineko izenburua, lanaren laburpen txikia (gehienez ere 15 lerrokoa), erabiliko duen bibliografia garrantzitsuena, eta espezialitateko irakaslearen ontzat emana.

*6. Lana entregatzea.*

Ikasleak txosten bat aurkeztu beharko du Ikastegiaren Idazkaritza Pedagogikoan; txosten horretan, honako hauek bildu beharko ditu: bere datuak, Lanaren behin betiko izenburua eta haren laburpen bat —gehienez 15 lerro—, zuzendariaren ontzat emana duela. Era berean, Lanaren lau ale koadernatu aurkeztuko ditu; horietako hiru, Ebaluazio Epaimahaiko kideei emango zaizkie, eta

tiempo completo.

3. *Curso de Introducción a la Metodología de la Investigación.*

Los alumnos comenzarán con un Curso de Introducción a la Metodología de la Investigación que se realizará en grupos de una ratio máxima de 1/10.

Dicho curso introductorio será impartido por uno o varios profesores de **musikene** designados por el Director Artístico y que estén en posesión del Grado de Doctor. Las horas de clase correspondientes se incluirán dentro de su carga lectiva ordinaria.

El descriptor de los contenidos básicos del curso introductorio será el siguiente: <<Concepto de investigación y tipos de investigación. Líneas de investigación en música. Estructura formal de un Trabajo de investigación: partes constitutivas indispensables. Referencias bibliográficas y citas>>

4. *Tutorías de los directores.*

El alumno dispondrá de 10 horas de tutoría individual por parte del director asignado. Dichas horas se distribuirán en un calendario acordado entre alumno y director que se comunicará al Jefe de Estudios en el momento en que se establezca.

5. *Matriculación.*

La matriculación del Trabajo de Investigación de Fin de Carrera se realizará después de la correspondiente a las asignaturas ordinarias.
El trámite a seguir por el alumno consistirá en la presentación de una instancia cuyo modelo normalizado podrá recogerse en la Secretaría Pedagógica del Centro. En ella habrá que reflejar el título orientativo del Trabajo, un breve resumen del mismo (de 15 líneas máximo), su bibliografía más relevante, y el visto bueno del profesor de especialidad.

*6. Entrega del Trabajo.*

El alumno aportará a la Secretaría Pedagógica del Centro, un informe donde consten los datos del alumno, el título definitivo del Trabajo y un resumen de un máximo de 15 líneas con el visto bueno del director. Entregará, además, cuatro ejemplares encuadernados del Trabajo, tres de los cuales se remitirán a los miembros del Tribunal evaluador y quedando el cuarto depositado permanentemente en **musikene**.

Tras la formalización de la entrega del Trabajo, un

musikene

laugarrena **musikene**n geratuko da behin betiko.

Lana formalki entregatu ondoren, **musikene**ren Idazkaritza Pedagogikoan egongo da erakusgarri 15 egun naturaleko epean. Epe horretan, Goi Mailako Musika Titulua edo horren baliokidea duen edozein irakurlek izango du ikerketan atzematen dituen akatsak aditzera emateko aukera. Epe hori iragandakoan eta atzemandako akatsak zuzendu ondoren, Defendatzera aurkezteko gaitzat emango da Lana, eta behin betiko ale bana bidaliko zaio Ebaluazio Epaimahaiko kide bakoitzari. Dena den, izapide hori egin baino lehen, ikasleak dagokion espezialitateko irakas-gai guztiak gainditutа eduki beharko ditu ezinbestean.

7. *Ikerketa Lanaren defentsa eta ebaluazioa.*

Epaimahaiaren aurreko ahozko Defentsa ekitaldi publikoa izango da. Epaimahai Buruak Ikerketa Lanaren izenburua, izangaiaren izena, titulazioa eta hark lortu nahi duen espezialitatearen gradua irakurriko ditu. Ondoren, izangaiak gehienez 20 minutu izango ditu bere Lanaren alderdi garrantzitsuenak azaltzeko.

Defentsa bukatutakoan, egiten dizkioten galderei erantzun beharko die izangaiak. Epaimahai Buruak moderatuko ditu hitz-txandak eta galderen txanda ezarriko du, honako ordena honi jarraiki: Epaimahaiko Idazkaria, Epaimahaikidea, ekitaldi publiko horretan dagoen Goi Mailako Musika Titulua edo horren baliokidea duen edonor, eta azkenik, Epaimahai Burua bera.

Ondoren, Epaimahaiak pribatuan deliberatzeko denbora-tarte bat izango du, behin betiko kalifikazioa ematearren. Deliberamendu horren ondoren, ekitaldi publikoari ekingo zaio berriz eta Epaimahaiak kalifikazioa jakinaraziko du. Lana gainditu bada, kalifikazioa akta akademikoan jasoko da testuan zein zenbakiz; kalifikazioa honako hauetako bat izango da: GAI [5-7]; OSO ONGI [7-9]; BIKAIN [9-10]. Lana gainditu ez bada, EZ GAI kalifikazioa agerraraziko da.

Epaimahaiak gehieneko kalifikazioa ematen badu, BIKAIN (10) alegia, izangaia OHOREZKO MATRIKULA lortzeko proposatuko du.

Ikasturte berean bi deialdi bereizi egingo dira, bata uztailean eta bestea irailean; beraz, ez dira izango bata ohikoa eta bestea ez-ohikoa. Ikasleak bietako bat aukeratuko du, bere zuzendariarekin adostuta. Lanaren ebaluazioa gainditzen ez badu, hurrengo urteko deialdi batean aurkeztu beharko du berriz.

ejemplar de éste quedará expuesto en la Secretaría Pedagógica de **musikene** durante un plazo de 15 días naturales. Durante este período, cualquier lector en posesión del Título Superior de Música o equivalente, podrá poner de manifiesto eventuales errores que presente la investigación. Pasado ese período y después de haberse corregido las anomalías que se hubiesen detectado, el Trabajo se considerará apto para presentarlo a su Defensa, con lo que se remitirá un ejemplar definitivo a cada miembro del Tribunal evaluador. No obstante, dicho trámite estará condicionado a que el alumno haya aprobado todas las asignaturas de la especialidad correspondiente.

7. *Defensa y evaluación del Trabajo de Investigación.*

La Defensa oral ante Tribunal tendrá carácter de acto público. El Presidente del Tribunal leerá el título del Trabajo de Investigación, el nombre del candidato, la titulación y la especialidad a cuyo grado aspira. A continuación, el candidato dispondrá de un máximo de 20 minutos para la exposición de los aspectos más relevantes de su Trabajo.

Finalizada la defensa, el candidato deberá responder a las preguntas que se le formulen. El Presidente del Tribunal moderará las intervenciones y establecerá las preguntas en el orden siguiente: Secretario del Tribunal, Vocal del Tribunal, cualquier Titulado Superior de Música o equivalente que se encuentre en el acto público y, finalmente, el propio Presidente.

Después, el Tribunal dispondrá de un tiempo de deliberación en privado para emitir una calificación definitiva. Tras esta deliberación se reanudará el acto público y el Tribunal comunicará la calificación. Si el Trabajo está aprobado, la calificación quedará reflejada en el acta académica en texto y número con las siguientes posibilidades: APROBADO [5,7); NOTABLE [7,9); SOBRESALIENTE [9,10]. En el caso de que el Trabajo no haya sido aprobado figurará sólo la calificación de SUSPENSO.

Si el Tribunal otorga la máxima calificación: SOBRESALIENTE (10), el candidato será propuesto a la obtención de MATRICULA DE HONOR.

En un mismo año académico habrá dos convocatorias independientes, que no tienen carácter ordinario y extraordinario respectivamente, una en Julio y otra en Septiembre. El alumno elegirá, en con-senso con su director, a cuál de las dos se acoge. En el caso de suspender la evaluación del Trabajo deberá presentarse a una nueva convocatoria en un

musikene

8. *Epaimahaiak osatzea.*

Lanen ahozko Defentsarako Epaimahaiak musikeneren Zuzendaritza Batzordeak izendatuko ditu, eta Zuzendari Artistikoaren ebazpen baten bidez emango dira argitara, ekitaldi akademikoa egin baino hamabost egun natural lehenago gutxienez.

Epaimahai Burua Ikastegiko irakasle doktore bat izango da. Epaimahaikidea izangaiaren espezialitateko irakaslea izango da. Espezialitate horretako irakasle bat baino gehiago izanez gero, Ikerketa Lanaren xedearekin lotura zuzenagoa duen arloko irakaslea izango da Epaimahaikidea. Idazkaria musikeneren Zuzendaritza Batzordeko kide bat izango da.

Lanaren zuzendaria ezin izango da inola ere bere ikasleetako baten Ebaluazio Epaimahaiaren partaide izan.

9. *Epe administratiboak.*

Urtean behingo Ebazpen baten bidez, Zuzendari Artistikoak ikasturte bakoitzerako Karrera Amaierako Ikerketa Lanen matrikulaziorako eta lan horiek aurkezteko epeak emango ditu argitara.

año académico posterior.

8. *Constitución de los Tribunales.*

Los Tribunales para la Defensa oral de los Trabajos serán nombrados por la Junta Directiva de musikene y se harán públicos en una resolución del Director Artístico, al menos con quince días naturales de antelación a la realización del acto académico.

El Presidente será un profesor doctor del Centro. El Vocal será el profesor de especialidad del candidato. En el caso de haber más de uno se escogerá a aquél cuya área sea más cercana al objeto de investigación del Trabajo. El Secretario será un miembro de la Junta Directiva de musikene.

En ningún caso el director del Trabajo podrá formar parte del Tribunal evaluador de alguno de sus alumnos.

9. P*lazos administrativos.*

El Director Artístico hará públicos, mediante una Resolución anual, los plazos de matriculación y entrega del Trabajo de Investigación de Fin de Carrera para cada curso académico.

Donostia/San Sebastián, a 2 de noviembre de 2004ko azaroaren 2an.

Alejandro ZABALA LANDA
ZUZENDARI ARTISTIKOA / DIRECTOR ARTÍSTICO